Arabako Ibilbide Berdeen Sarea
Red de Itinerarios Verdes de Álava

# MAPA: GR 25 Barria - Legutio





**BARRIA-LEGUTIO**

**0. km.- BARRIAKO MONASTERIOA:** aurreko etapan Barriara eraman gaituen mendi-bidea hartuko dugu, eta, lehenengo bidegurutzean, ezkerretara joko dugu. Zenbait mendi-bide zeharkatu ondoren, Axpuru zein Larreako herri-guneetara doazen saihesbideak utziko ditugu alde batera, eta Arduñabetako ur-putzua inguratuko dugu. Laster, abeletxeetako txabolen ondotik igaro eta zuhaiztian barruratuko gara, harik eta Ozaetara doan auzo-errepideraino heldu arte. Herri-gune horretara iritsi baino lehen, eskuineko saihesbidea hartuko dugu, Elgeara hurbiltzeko.

**11,5. km.- ELGEA:** trazatuak pinudi, harizti eta pagaditxoen artean doazen basabideak zeharkatuko ditu, eta, andelaren albotik igaro ondoren, Marietako herri-gunera iritsiko gara. Bidean, gainera, Ullíbarri-Gamboa urtegiko lehen ikusmirez gozatu ahal izango dugu. Berriro ere, mendi-bidean zehar joango gara San Bernabe baselizaraino, eta, bertatik, Landako Eskualde Parkeraino jaitsiko gara.

**22,3. km.- LANDA:** Landako jatetxea utzi eta Vasco-Navarro trazatuaren azpitik igaroko gara; eta, ondoren, A-3002 errepidearen azpitik. Hurrengo tartean, Isuskitza mendira igotzeko ibilbidearekin bat egingo dugu. Gailurraraino iristen den bide honetan hainbat gurutze topatuko ditugu. Dena dela, gailurrera iritsi baino lehen, beste bide bat hartuko dugu. Makatzara heltzean, baso-aterpetxea aurkituko dugu, eta, bertan, inguruminguruka joango gara, Urrunagako urtegiak bustitako Legutioko udalerrira hurbiltzeko. Etapa udalerrian bertan amaitu baino lehen, trazatuak GR 38 Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidearekin bat egingo du.

**29,8. km.- LEGUTIO:** Legutioko herrixka 1933an izendatu zuten hiribildu, eta, gaur egun, oraindik ere bertan dago Kristoren Arkua, hau da, Erdi Aroko hiribildua babesten zuen antzinako harresiaren ageriko aztarna bakarra. Bertako kaleetan, ostatuak, garraio publikoa eta beste zerbitzu batzuk daude eskuragarri.

## MIDE

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 29,8 Km | 787 m | 839 m | 9h 5' | Gogortasuna 1 Severidad | Orientazioa 2 Orientación | Desplazamendua 2 Desplazamiento | Esfortzua 4 Esfuerzo |

MIDE ibilbideen gogortasun teknikoa zein fisikoa baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.

MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira):

- Ingurune naturalaren gogortasuna
- Ibilbidean orientatzeko zailtasuna
- Desplazamenduaren zailtasuna
- Behar den ahalegin maila

## PROFILA



# IBILBIDE ORRIA. GR 25: Barria-Legutio

## BUKAERA

| | Km |
|---|---|
| LEGUTIO | 29,8 |
| Desbiderapena | 29 |
| Desbiderapena | 28,7 |
| Desbiderapena | 27,3 |
| Bidegurutzea. Albertia esk. | 25,3 |
| Baso-aterpea | 24,5 |
| Desbiderapena | 23,5 |
| Desbiderapena | 22,7 |
| Errepide azpiko tunela | 22,5 |
| LANDA | 22,3 |
| Ur-biltegia. Pista utzi | 21,8 |
| Auzo-errepidea | 21,5 |
| Pista | 21 |
| Bidegurutzea | 20,4 |
| Bidegurutzea. Aterpea | 20,3 |
| Bidegurutzea | 16,8 |
| Bidegurutzea | 16,4 |
| Desbiderapena | 15 |
| MARIETA | 14,8 |
| Ur-biltegia | 14,4 |
| Bidegurutzea | 14 |
| Bidegurutzea | 13,6 |
| Desbiderapena. Elgeamendi esk. | 13 |
| San Andres ermita. Desbidp. | 11,8 |
| ELGEA | 11,5 |
| Bidegurutzea | 11 |
| Desbiderapena | 10,1 |
| Pasabidea | 9,5 |
| Desbiderapena | 9,3 |
| Baserria. Pista zeharkatu | 9,1 |
| Desbiderapena | 8,2 |
| Desbiderapena | 7,6 |
| Baserria. Pista zeharkatu | 7,5 |
| Bidegurutzea | 6,7 |
| Desbiderapena | 6,1 |
| Bidegurutzea | 6 |
| Baltsa | 5,7 |
| Bidegurutzea | 4,3 |
| Auzo-errepidea. Larrea ezk. | 3,8 |
| Desbiderapena. Pista utzi | 3,5 |
| Desbiderapena | 3,1 |
| Pista | 2,7 |
| Desbiderapena | 1,7 |
| Desbiderapena | 1,6 |
| Desbiderapena. Atea | 1 |
| Bidebanatzea | 0,6 |
| GR 25-arekin lotura | 0,4 |
| BARRIA | 0 |

## HASIERA

## SARBIDEAK




*Descarga de información y tracks :* ***www.alava.net***




**Aguraingo turismo bulegoa:** 945 312 535

**Garaioko informazio puntua:** 695 782 498

**Murgiako turismo bulegoa:** 945 430 440

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Zuiako Koadrila
Cuadrilla de Zuia

112 SOS DEIAK